

Karakol zopa

Felix ZUBIAGA

Polonia eta Juankruz senarremazteak Erletxetako Goi-korrotan bizi dira bere semealabatxoekin. Juankruzek Usansoloko olan egiten dau lan eta asteburuko bere kapritxorik handiena karakol edo marraskilo kaxuelatxoa prestatu eta lagunekin jatea izaten da.

Polonia arazoz beterik ibiltzen da etxe inguruan: umeak zaindu, behiak gobernau, barazkiak jorratu, oiloei jaten emon, etabar.

Zapatua da eta Juankruz goizetik askatu da ola-lanetik. Beti legez plastikozko baldea hartu eta lantzarreko harresira doa karakoletan. Ondo dakiz euren ezkutazulo eta jantokiak. Ordu erdi bateko azterketa ondoren marraskiloz bete dakus baldea. Polonia korainea lepoan dago, Juankruzek marraskilo baldea dakartsonean.

—Gaur ezin dot, gizona; hurrendo baten izango da —dirautso Poloniak segapotoa garrikoan ipinten dauelarik—. Gaur txuleta bat ipini deusut patata prijituekin.

—Eta neure konbidadu lagunak?

—Txuleta bana patata prijituekin; ez ala?

—Baina, andrea, karakolak garbitzea horren buru-hauste badozu, ez daukazu zertan arduratu —dirautso



—faint, illegible text at the bottom of the page, possibly bleed-through from the reverse side.

Juankruzek—. Zertan karakolak banan-banan garbitzen ibili? Neuk garbituko dodaz Korreoa leiduta daukadanez gatzaz eta binagreaz...


—Hara gizona, nik Korreoa leiduteko astirik be ez daukat bai, eta zeuk jakingo dozu zer egin.

—Nasai andrea, itzi gauzea neure arduran.

Polonia bedarretan doa eta Juankruz hartu marraskilo baldekadea eta garbigailura zuzenean. Umeen gonatxo eta mantar batzuk dagoz bertan, baina programan sartu barik makinea. Juankruzek zapiak atera eta, garbigailuak zuloa goitik behera daukanez, bertan iduliten dau marraskilo baldekadea. Eskukada bi gatz hornidu deutsoz gainera eta botila erdi ospin ixuri gainetik, elementu biok programa-ko ontzi banatan barik, batera lan egin behar dabelako.

Emoten deutso indarrari eta ha zan marraskiloen dantza eta kanta danbore barruan «kra-kra-kra, kri-kri-kri» ugaraxioak udabarrian baino be alaiago.

Musika harek pozarren dauka Juankruz, Korreoa irakurritako inbento barriak mahai lagunei egin behar deutesen grazia aurretiz gozaten dagoala. «Eskerrak berari, bestela ez genduken gaur karakolik» ohartzen dau. Zer dan aurrerapidea! Halako makinatxoa morroitzat etxean eukitea, beti-beti norbere eskuak nekepean eta alperrik galtzen erabili barik. Zorioneko dau Juankruzek andreaki «labadorea» erosi eutsanekoa. Handik aurrera barriz karakolak berak garbitzeko asmoa hartzen dau. Egoki zan, zapatuan behenipehin, etxeko lanak be banatzea, mahai ingurua gozoagoa egitearren. Halako inbentoaz, marraskiloak garbitu ezezik, Korreo irakurteko astia be ba emo-



tsan. Eta hori da gizonaren ganorea: gauzen jakitun egotea, buruaz lan egitea, ez oinekaz eta ez eskuez bakarrik...

Larregi oharbagnetu barik, Juankruzek belarria adi dauka marraskiloen kantuari, bada ikusi, ez dakus garbigailu barruan zer jazoten dan. Izan be marraskiloen abestia gozatzen doa. Hasieran «kra-kra-kra, kri-kri-kri» izan bazan, orain «kara-kara, kiri-kiri» leunago doa eta gerotxoago dana bare-bare, bitsetan legez. «Gatza urtu egin da» —ohartzen dau Juankruzek— honez gero programea amaiturik dago». Erlojura begiratzen dau. Ordu lauren igaro da. «Jo! Pentsa baino ez dago, gure andre gixajiak, karakolak banan-banan garbitzen ordu betean ostaz egiken lana, nik ordu laurenean jotanka egin dodala! Lerdeak garbitu, adurrak txukatu, gatza, binagrea, ura eta zer gehiago?».

Tapea jaso eta eskua sartzen dau barrura Juankruzek. Gainaldeko bitsa eta zirina haztatzen dauz. Barrura daroa eskua. «Jo! Mokoak hemen dagoz, baina karakolak nora joan ete dira?» Sakonago aztertzen dau. Estutu egin da Juankruz oskolik ez topatzean. Ene! Barrenean azalak, galpenaren seinale zihur... Ha zan eskuetan eukan karakol zopa!

Gauzea ezkutatzekoa zan beste ezertarako baino, eta Juankruzek zopa guztia harritik behera ixuri dau, Polonia andreak ikusi ez daian. Urari emon eta lexibaz igurtzi dau garbigailuaren tanborra, hagin artean Korroea mada-rikatzen dauela. «Horrek erakutsiko deusku horregatino garbigailua garbitzen, geure lohiak berari garbitzen erakutsi beharrez...». Madarikazinoa botala, Polonia andrea



ateetan zan bedar ebatetik etorribarri, umeen lexibea mar-
txan jartea ahaztu jakola eta.

—Karakolak garbitu dozuz ala, gizona, dagoneko?

—Zizko andrea, zopatarako itzi dodaz...

—Esan deutsut nik, Jaunkruz, horrek uste baino be
beharleku gehiago emoten dauala, batez be gauzea zehatz
egin gura izanez gero.

—Hori esan ba...!

Poloniak soinean daukan amantala eta eskusorki bi
gehitu deutsoz lexibeari. Hutsik dakus tanborra, ume jan-
tziak alboratuta, «nork atara ete dauz jantziok labadora-
tik» maizeatzen dau bere artean; Juankruz isilik...

Tamborra bete, hiru lexiba motaz garbigailuaren on-
tzitxoak hornidu eta botoiari emon deutso Poloniak. Emo-
nala, «uum...» marrusialako durundia egin deutso maki-
neak, plomoak funditzeko zemaitan. «Zer jazoten jako
honi, goizion hain zoli ibili da eta» daragoio Poloniak.
Indarra kendu, botoiak aztertu eta barriro emokeran, le-
hen baino be marrusi mingarriagoa. Juankruz isilik...

—Zeu ibili ete zara ba hemen, gizona? —salatari be-
giratzen deutso Juankruzi Poloniak.

—Kalarolak garbitzen...

—Karakolak garbitzen? Labadoreari zer egin deusta-
zun itauntzen deutsut nik.

—Nik ezebez. Berak bai neuri: karakol guztiak jan
deustaz eta. Tripalak izango dauz urrean.

—Karakolak garbitzen ibili zarala labadorean! Jesus ene! Hau gizonaren ganorea!

—Ez da izan neurea burutazinoa, andrea. Lehengo batean leidu neban neuk Korreogan, zelan garbitu leikezan karakolak...

—Korreogan hatan be! —Esku biak garrian, Polonia Juankruzen itzulbiran dabil zentzuna senarrari nondik sartu ezinik. —Eta zuk, papaua legez edozein ipuin sinistu! Eta orain zelan garbituko dodaz nik umeen bihar-ko jantziak? Jesus, Jesus!

Garbigailua hustu, barrenak aztertu, karakol azal arrastoetan senarraren barrabaskeria egiztatu eta han ibili zan Polonia tresnea konpondu ezinik. Marraskilo azalak sartu jakozan danborrari... ardatzean eta itotzeraino gal-gatzen eben.

Mekanikuari deitu eta mekanikua astebete etorri barik. Asteak daukazan beste egun iraun eban Poloniaren murrizak Juankruzi berbarik egin barik, «ea honela sikeran konturatzen dan» inoala haginartean. Konturatu? Ezbaitan dago Juankruz arrezkero, eta uretan ala ur barik garbitu behar ete ebazan karakolak. Eta izparringian kontultatzen dau.